

Nork zainduko du gizarte zibila?

Azkenaldi honetan urak oso zikinak datoz Euskal Herriko ibai zurrunbilotsu honetan. Nahaste-borraste eta ur arre hauen artean nire buruak ezin du egoera garbi ikusi eta are gutxiago paperean argi azaldu. Nabari ditudanak era nahasian paratuko ditut hemen, ea zuk hauek denak ikusita, argitasunik izaten duzun irtenbide egoki bat bilatzeko.

Epaileek ez dute ustezko prebrikazioaren beldurrik. Garai bateko Torquemada edo Juan del Valle Alvarado inquisidoreek bezalaxe “sorgin” pilo bat topatu dute euskaldunon artean. Gainera zuk ere sorginen iturri beretik edaten baduzu, sorginleriaz kutsatuta gera zaitezke hori eta horrenbestez.

Torturatzailerik bihozgabeek eskuak libre dituzte nahi dituzten izugarrikeriak egiteko eta inork ez die konturik hartzen. Okerrago oraindik, bulegoetan dauden jauntxo dotoreen agindu isilak betetzen omen dituzte euskal sorginei ahalmenak mozteko.

GALtzaileak eta GALzaleak otso berbera bilakatu dira, Euskal Herrian zehar triskantza beldurgarriak eraginez. Okerrera zera da: erasotako ardiek eta arkumeek bere artaldeko ez diren beste ardi latxa batzuei egozten ari direla errua, otsoak eta beste ardi batzuk bereizi ezinik.



DANI BLANCO

Lapur mota ugarik gizarte zibila hartu dute lapurreta-subjektu: pabiloiak, txaletak, kale-etxeak, telefono-kableak, autoak, gazteen bil-tokiak... Epaile, politikari eta polizia mota guztiek ez dakite zer egin hauekin. Lasai egiten dute lapurreta, armak (zuriak eta beltzak) eskuetan erabiliz. Banku boteretsuekin, poliziarekin eta politikariek sartzen ez direnez eta, ehun mila aldiz eginda ere, delitu txikiak omen direnez... zer egingo zaie ba? Bi edo hiru harrapatu eta handik bi ordura libre daude.

Adin txikiko etorkinak ere libre dabilta.

Ostatua, janaria eta dirua dohainik ematen zaie eta horietako ausartean hor dabilta labanak atera eta lapurretak egiten, bizikletak, mobilak, eta ahal dituztenak ebasten. Euren begiraleak ere izututa dabilta eta askok “erreta” ez, “kiskalduta” baja hartu behar izan dute. Hala xe bukatu du, kiskalduta, Segurako aterpetxeak ere. Badakit SOS Racismoko kideek kristorenak esango dituztela nitaz, baina adin txikiko etorkin borondate eta jarrera onekoen aurka ez daukat ezer. Baina horien arteko lau edo bost bandore-

roren balentriak nork geraraziko ditu? Begiraleek ezin dute, ertzainek ere ez nonbait, epaileek ere ez. Eta badirudi legeak babesa ematen diela edozein triskantza egiteko.

Nork babestuko du gizarte zibila? ■

« GALtzaileak eta GALzaleak

otso berbera bilakatu dira,

Euskal Herrian zehar

triskantza beldurgarriak eraginez

»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Omen da inguratzen gaituen gaitza. Ez dira gutxi bizi ditugun adibideak, nahi eta ezina sortzen dizkigutenak. Joan deneko greba orokorreko deian, parte hartzeko dei hartan hori zen antolatzaileen beldurra, gu guztion pasibotasuna, beti ere paso egitea eskura daukagun joera dela. Ez da batere erraza izaten ekimenak asmatu ondoren sozializatzea. Ilea bakanduta daukagunok badugu horren berri. Hain da zaila, jada industria ere sortua zaigu, eta ezker-eskuin iragartzen dituzte ikastarokak helburu hori lortze aldera teknikak ezagutu eta erabiltzen irakasteko. Era anitzetako erakundeek osatzen dute

Pasibotasuna

bezeria. Eta orotan dago oinarrizko lege bat: norberak erabakietan parte hartu behar du ekimenek arrakasta izango badute. Edozein dela ere eremua, egoerak eta asmoak konpartitu egin behar dira erabakiak hartu aurretik. Aberri Eguna dator. Urtetan ibili gara antolatze lanetan. Iaz, asmoa zabaldu eta bateratua antolatzerira iritsi ginen. Aurtengoa, erabakita dagoela ikasi dugu hedabideetan, Nazio Eztatanda Guneak bere alde-tik erabakita duela jakitera eman digu jada eta guk ez dakigu norekin eztabaidatu. Gaizki hasi dute ekimena. Garaiz gaude oraindik okerra zuzen dezaten. Gu, prest eta zain. ■